



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

128. zenbakia

2022ko irailak 16 – irailak 29

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

Udalerrri mailako hizkuntzen erabileraren kale neurketa sakonen emaitzak aurkezten ari dira, herriz herri

Hizkuntzen erabileraren kale neurketaren 2021eko edizioan, Euskal Herri mailako ikerketaren aldiberean udalerrri mailako neurketak egin ziren hainbat kasutan, udalerrri hauetako egoera zehatzago ezagutzeko.

2021eko Txillardegui-Hausnartu sarietako lanekin osatu da BAT Soziolinguistika Aldizkariaren 122-123 zenbaki bikoitza

Txillardegui-Hausnartu Soziolinguistika Sarien 2021eko edizioan lan mamitsu ugari jaso ziren eta, horregatik, BAT aldizkariak zenbaki bikoitz berezia osatu du.

Soziolinguistika Klusterra Katalunian izan da, Hizkuntza Indigenen eta Gutxituen Biziberritzearen Nazioarteko III. Kongresuan

Soziolinguistika Klusterraren Bulego teknikoko kide Paula Laita eta Olatz Altuna izan dira irailaren 13tik 16ra Gironan eta Perpinyan egin den III. Congr s Internacional de Revitalizaci  de Lleng es Ind genes i Minoritzades-en.

Euskara hutsean bizi nahi dutenentzako ikastaroa jarriko da martxan urrian hainbat eskualdetan

[Tolosaldeko Ataria] Galtzaundi Euskara Taldeak beste hainbat euskara elkarterekin, Topagunearekin eta Soziolinguistika Klusterrarekin euskaldunon ahalduntze eskola jarriko dute martxan aurtengo udazkenean.

Ikerketak

Gaztelaniazko ikus-entzunezkoen nagusitasuna nabarmena da herririk euskaldunenetako ikasleen artean

[BERRIA] Datorren moduan hartzen da, eta etorri, nagusiki, erdaraz dator. Ondorio hori erator daiteke Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak gazteen ikus-entzunezkoen kontsumoari buruz egin duen ikerketatik.

Araban euskararen erabilera sustatzeko Henrike Knörr ikerketa sarien bigarren edizioa zabalik

[Euskaraba] Arabako Foru Aldundiak, EHUrekin lankidetzan, Henrike Knörr ikerketa sarien deialdi berri bat jarri du martxan. Ikerketa horiek Araban euskararen erabilera aztertzea eta sustatzea dute helburu eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 15ean bukatuko da.

Euskaltzaindiak jarraipena emango dio Mintzola egitasmoari, batez ere, eguneroko hizkera langai hartuta

[Euskaltzaindia] Mintzola Fundazioa 2021ean azkendu ondoren, Mintzola egitasmoa hizkeraren lantegia izango da aurrerantzean. Horretarako, Euskaltzaindiak bere lan eremua, lehentasunezko lan ildoak eta jarduerak finkatu ditu.

Premi M. Reixach en sociolingüística

[Xarxa Cruscat] El pròxim 2 de desembre de 2022, a les 13 hores s'acaba el termini per a presentar candidatures al Premi Modest Reixach de la Societat Catalana de Sociolingüística per a publicacions de l'any 2021 relatives a temes de sociolingüística.

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

XXI. menderako hizkuntza politikaz jardunaldia

[UEU] XXI. mendeko erronken aurrean zer hizkuntza politika behar dugun argitzeko eztabaidatu beharra dago. Telesforo Monzon laborategiko Txillardegi Gogoeta Guneak, Jakinek eta UEUK elkarlanean antolatu duten jardunaldi hauen asmoa.

Matrikulazioa irekita "Euskal Kulturgintzaren Transmisioan (EKT)" unibertsitate aditu ikastarorako

[Mondragon Unibertsitatea] XXI. mendeko galdegaiei begira, ibilbide luzeko euskal kulturgintzaren transmisioa ipar duen formazio-eskaintza da hau.

'Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gazteen artean' jardunaldia (laburpen-bideoa)

[Euskaltzaindia] Zortzi-hamabi urteko gaztetxoen euskarazko ahozko jarduna indartzeko aukerak eta bide berriak landu ziren Iruñean, Iruñeko Komunikabideak Fundazioak eta Euskaltzaindiak antolaturiko jardunaldian.

Seminari de Sociolingüística i Política Lingüística del CUSC-UB (curs 2022/2023)

[CUSC-UB] Ja heu consultat el programa del seminari del CUSC-UB per al curs 2022/23? Gratuït i en línia, el nou curs comença el 30/09 amb una xerrada de l'Antonio di Paolo.

Ja tenim les dates dels seminaris virtuals del GRESIB d'aquest curs acadèmic

[GRESIB] Els seminaris virtuals del GRESIB tornen aquest curs i comença el 29 de setembre amb una presentació a càrrec de Catalina Amengual.

—

Liburuak eta artikulu zientifikoak

The governance of Basque language revitalisation in the Basque Autonomous Community: from confrontation toward collaboration

[Journal of Multilingual and Multicultural Development] This paper analyzes the discourses on the governance of Basque language revitalization in the Basque Autonomous Community and contrasted them with main governance models to see how they seek to gain legitimacy for current speakers.

What has changed over 18 years? Future teachers' language use and attitudes towards multilingualism in the Basque Autonomous Community

[Language and Education] With this study, we wish to contribute to the discussion about multilingualism within a multilingual education system, where a minority language co-exists with a national majority language and a global lingua franca.

Guía para la inclusión lingüística de migrantes

[Ediciones Universidad de Salamanca] Esta guía pretende convertirse en un aliado tanto de quienes deseen ampliar sus conocimientos sobre el fenómeno migratorio como de aquellos que, además, quieran facilitar el proceso de integración a estos colectivos.

Language education injustices in Mexican indigenous communities during COVID-19 pandemic

[Journal of Applied Language Studies] The distance education modality after covid-19 began to demonstrate the social inequalities most students find themselves in, even more in the South of Mexico.

Speaking Subjects in Multilingualism Research: Biographical and Speaker-centred Approaches

[Multilingual Matters] This book discusses salient moments of multilingual encounters and brings together contributions focused on the interplay between language use by individuals and societies, and language-related inequalities or opportunities for speakers.

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

«ELE euskararen arnaguneetarako zaintza tresna da»

[BERRIA] Diman (Bizkaia) onartu egin dute ELE Eragin Linguistikoaren Ebaluazio plana, Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak udalen plan eta proiektuen hizkuntza inpaktua neurtu eta aurreikusteko egindakoa. Ordenantza onartu duen aurreneko herria da.

Batzarretan euskara bermatzeko aldibereko interpretazio sistema erraztu du Lanekik

[Euskaraba] Euskararen erabilera bermatzeko helburuarekin, batzar eta ekitaldietan erraz erabili daitekeen aldibereko interpretazio sistemaren inguruko azalpen bideoa sortu du Lanekik, Lanabes egitasmoaren barruan.

2022ko Fair Saturday sari berezia Garabide Elkartearentzat

[Garabide] Irailaren 26an Bilboko Guggenheim Museoa antolatu du Fair Saturday Fundazioak ekitaldia, guztira, 9 ekimen saritzeko. 2017an sortu ziren Fair Saturday sariak Bilbon, hain zuzen ere, artearen eta kulturaren bidez gizartea eraldatzen duten nazioarteko pertsona eta erakunde inspiratzaileen ekimenei aitortza publikoa egiteko.

Yukatan penintsulatik Donostiara

[Garabide] Mexikoko Yukatan estatuko hiriburua den Méridako udaletik delegazio bat dator, Garabide Elkartearen bitartekaritzari esker, Donostiako Udalarekin harremanak sendotzera.



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

emun[®]
Euskara eta
berrikuntza soziala